

**Gradua: Ekonomia**

**2020/2021 kurtsoa**

**COVID-19 KRISIAREN ANALISI  
SOZIOEKONOMIKOA EUROPAR  
BATASUNEAN**

Osasun krisi batetatik haratago

Egilea: Ane Arratibel Sarriegi

Zuzendaria: Mertxe Larrañaga Sarriegi

Bilbon, 2021ko Ekainaren 19a

## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| 1. SARRERA .....   | 3  |
| 2. MUNDUKO OSASUN ERAKUNDEA .....  | 6  |
| 2.1. INFORMAZIO OROKORRA.....  | 6  |
| 2.2. MUNDUKO OSASUN ERAKUNDEAREN ERANTZUNA PANDEMIA GLOBALAREN<br>AURREAN..... | 8  |
| 3. PANDEMIAK ERAGINDAKO KRISIA EUROPAR BATASUNEAN .....                        | 9  |
| 3.1. PANDEMIAK EUROPAR BATASUNEAN SORTURIKO KRISIAREN ONDORIOAK .....          | 9  |
| 3.1.1. Osasuna .....   | 10 |
| 3.1.2. Ekonomia.....   | 14 |
| 3.2. EUROPAR BATASUNAK PANDEMIARI AURRE EGITEKO HARTU DITUEN POLITIKAK..       | 22 |
| 4. TXERTOAK EUROPAR BATASUNEAN .....   | 31 |
| 4.1. TXERTOEN BANAKETA ETA PREZIOAK.....                                       | 31 |
| 4.2. FARMAZEUTIKEN EGOERA.....   | 34 |
| 4.2. JABETZA INTELEKTUALAREN AUZIA TXERTOETAN.....                             | 37 |
| 5. ONDORIOAK.....  | 39 |
| 6. BIBLIOGRAFIA - WEBGRAFIA.....   | 42 |

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

|   |    |
|---|----|
| 1. Grafikoa: MOEren aurrekontuko ekarpenen ehunekoak (2018-2019).....   | 7  |
| 2. Grafikoa: Europar Batasuneko herrialdeetan baieztatutako eta heriotza kasuak 10.000<br>biztanleko (2021eko Maiatza)..... | 11 |
| 3. Grafikoa: Hileko gehiegizko hilkortasun tasa Europar Batasuneko herrialde desberdinen<br>artean (2020).....              | 12 |
| 4. Grafikoa: Asteko gehiegizko hilkortasun tasa Europar Batasunean urteka sailkatuta (2020)                                 |    |

|  |    |
|--|----|
| 5. Grafikoa: Hileko langabezia tasa Europar Batasuneko herrialdeetan (2007-2020).....  | 14 |
| 6. Grafikoa: Hiru hileroko gobernu orokorren zor gordina Europar Batasuneko herrialdeetan (2007-2020).....                       | 15 |
| 7. Grafikoa: Turismoaren mendetasunik handien duten EB-ko estatu kideak, turismoak duen menpekotasuna BPGaren %an neurtuta.....  | 18 |
| 8. Grafikoa: Hegaldi komertzialak herrialde berriemaileen arabera Europar Batasuneko herrialdeetan (2020).....                   | 19 |
| 9. Grafikoa: Ostatu turistikoetan igarotako gauak Europar Batasuneko herrialdeetan (2009-2020).....                              | 19 |
| 10. Grafikoa: Urte anitzeko finantza-zirriborroa 2021-2027 eta Next Generation EU (2018ko prezioetan).....                       | 23 |
| 11. Grafikoa: Italiaren Next Generation EU Europako funtsaren banaketa sektoreka (2021).....                                     | 25 |
| 12. Grafikoa: Espainiaren Next Generation EU Europako funtsaren banaketa sektoreka (2021).....                                   | 26 |
| 13. Grafikoa: Europar Batasunak erosi dituen txertoen zenbatekoa milioietan (2021-01-26).....                                    | 31 |
| 14. Grafikoa: Farmazeutiken burtsaren bilakaera (2020).....  | 34 |
| 15. Grafikoa: Farmazia-industriaren diru-sarreraren bolumenaren urteko bilakaera 2001etik 2019ra (milaka milioi dolarretan)..... | 35 |

## IRUDIEN AURKIBIDEA

|   |    |
|---|----|
| 1. irudia: MOEk mundu mailan dituen eskualdeetako ofizinen mapa.....  | 6  |
| 2. Irudia: COVID-19az infektatzeko, ospitalizatzeko eta hiltzeko harriskua edade talde bakoitzeko.....              | 13 |
| 3. Irudia: COVID-19aren krisiaren ondoren banatu diren funts europarrak milioi eurotan(2020-07).....                | 24 |
| 4. Irudia: Munduko farmazia merkatua 2023 (2019).....   | 36 |
| 5. Irudia:COVID-19ekin lotutako patenteak aldi baterako etetearen alde edo kontra dauden herrialdeak (2021-05)..... | 38 |

## TAULEN AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| 1. Taula: Txerto bakoitzaren prezioa dosiko (2020ko abenduan)..... | 32 |
|--|----|

## **1. SARRERA**

2019ko abenduaren 31an Munduko Osasun Erakundeak (MOEk), lehen aldiz hauteman zuen koronabirus (COVID-19) gaixotasunaren agerraldia Txinan. Ordutik hona, MOE, munduko zientzialari adituekin eta gobernuekin lanean aritu da birus honen inguruko ezagutzak zabaldu nahian, birulentziaren propagazioa arakatuz eta herrialde desberdinei aholkuak emanez. Modu honetara, biztanleriari behar diren neurriak ezarri zaizkie, hauen osasuna babestu eta birusaren zabaltzea gelditu nahian (Organización Mundial de La Salud [OMS], 2021c).

COVID-19 pandemiaren zatirik kezagarriena bere ondorio sanitario larriak dira dudarik gabe, birusaren ondorioz gertaturiko heriotzen zenbatekoa gorantz doalarik egunetik egunera. Horrelako mailako pandemiaren aurrean, ondorioak gizarteko puntu guztietaraino hedatu dira; besteak beste ondorio politiko, sozial eta ekonomikoetara, modu honetara gizartearen atal guztiei eraginez (Coronavirus noticias, 2020). Mundu mailako krisi honen aurrean hainbat dira jendearen ahotan dauden galderak eta ezingonak; zein izango dira Europar Batasunean kaltetuen irtengo diren herrialdeak? nola da posible farmazeutikoak mundu mailako pandemia baten aurrean irabaziak ateratzea? nola jardungo dute hainbeste aldiz telebistan entzun ditugun europar funtsak? besteak beste. Lan honen helburua krisiari buruzko ikuspegi sakon bat ematea izango litzateke, hainbat aldagai ezberdin azalduz, batez ere osasun alorra ekonomia alorrarekin lotuz, beti ere garrantzitsua baita osasun arazoiekin azaldu ezin daitezkeen hainbat politika, ekonomia arazoiekin azaltzea.

Lan honetan COVID-19 birusak sorturiko pandemia azalduko da, mundu mailako aspektuak azalduz baina batez ere Europar Batasuneko egoeran sakonduz. Gehiago delarik, Europar Batasuna ere oso antolakuntza heterogeneoa denez, krisian kaltetuen atera diren herrialdeak aztertuko dira gehienbat. Honetarako hainbat grafiko eta irudi erabiliko ditugu, esanguratsuen diren indizeak analizatu ahal izateko eta bertan, indize horietan esanguratsuen agertzen diren herrialdeak azaltzeko atal bakoitzean. Metodologiari dagokionez, kontuan eduki behar da egunerokotasun handiko gai bati buruz hitz egingo dugula lan honetan zehar, beraz, datu oso berriak erabiliko ditugu. Honen ondorioz, kontuan eduki behar da momentuan momentuko datuak erabiliko direla eta etorkizunean pasa liratekeen ondorioak objetiboki aztertzea ezinezkoa dela momentu honetan, beraz, hainbat hipotesi egingo dira. Batez ere prentsako artikuluak eta datu baseak erabiliko dira informazio iturri nagusi gisa, informaziorik momentukoena eta berriena lortu genezakeen iturriak direlako eta lehen esan bezala, pandemiari buruzko analisi bati buruzko ondorioak ateratzea zaila da pandemia oraindik amaitzear dagoen une honetan, perspektiba gutxi bait daukagulako arazoaren inguruan.

Lehenik eta behin MOE aztertuko dugu, pandemia egoera honetan lehen hitza eduki zuen mundu mailako lehen erakundea izan baitzen eta bere funtzionamendua ulertzen saiatuko

gara. Bere helbururik nagusienak aztertuko dira baina beti ere bere finantzazio prozesua aztertuz, erabakietan zer nolako influentzia izan dezakeen ikusi ahal izateko eta azkenik pandemiaren aurrean MOEk hartu dituen hainbat politika aztertuko dira.

Ondoren, Europar Batasunean birus honek ekarri dituen ondorio ekonomiko eta sozialak azaltzea izango litzateke hurrengo atalaren helburua, EBko webgune ofizialetatik esportatuko datu makroekonomikoak aztertuz, hainbat ondorio esanguratsu ateraz. Europar Batasuna antolakuntza heterogeneo bat dela ulertuz, arazo bakoitzaren aurrean gehien nabarmendu diren herrialdeak azpimarratuko dira. Hasteko, osasunaren alorra azalduko dugu eta honen ostean alor ekonomikora joko dugu, hemen barruan langabezia tasa, zor gordina, turismoaren mendekotasuna eta genero auzia aztertuz. Ondorio makroekonomikoak aztertu ondoren, EBk pandemiari aurre egiteko hartu dituen politikak landu ditugu, lehenik eta behin funts europarrei buruz ikertuz maila globalago batean eta ondoren gure ondorioetatik atera ditugun herrialde kaltetuenetara bideratu diren funtsen banaketa azalduz. Azkenik, EBko funtsen alde onak eta txarrak konparatzen saiatuko gara ea baten batek gailentzen duen ikusteko.

Lanarekin jarraituz, EBak pandemiari aurre egiteko beste puntu garrantzitsu bat aztertu behar izan dugu, hain zuzen ere, txertoak. Beraien banaketa eta prezioak kudeatzeak bere garrantzia eduki du eta batez ere txerto hauen atzean dauden enpresak aztertzea izan da atal honen helburua. Farmazeutikek pandemia honetan sortu dituzten hika mikak izugarriak izan dira eta beraien etengabeko irabaziak harrigarriak izan dira, beraz, irabazi hauek ahalbidetzen dituzten punturik nagusienean jarriko dugu begira, hau da, patenteetan.

Azkenik, aztertu dugun guztiarekin hainbat ondorio nagusi atera ditugu pandemiak sorturiko krisiari lotuta. Ondorio positibo eta negatiboak ateratzea beharrezkoa izango litzateke ikuspuntu anitza emateko krisien inguruan eta azterketa kritiko bat egin dezagun, bada ere, nahiz eta zaila iruditu batzuetan krisien ostean faktore onak ere aurkitu ditzakegu. Etorkizunari dagokionez ere hausnarketa pertsonal bat eman nahi izan dugu, beraz, nahiz eta etorkizunari buruzko ondorioak ateratzea ezinezkoa izan, hipotesi bat bota dugu, hain zalantzarria den etorkizunari begira.


## **2. MUNDUKO OSASUN ERAKUNDEA**

Nahiz eta osasun krisi hau beste hainbat alorretara zabaldu den eta lan honetan zehar batez ere arlo ekonomikoa azalduko den, kontuan eduki behar da bere sustraiak osasun krisi baten ondorio direla. Hau dela eta, txertoen eta produktu hauen atzean dauden enpresen azterketa zorrotza egitea beharrezkoa litzateke. Farmazeutiken politikak eta estrategiak ulertzea beharrezkoa da krisi honen norabidea ulertzeko eta batez ere, krisi honi aurre egiteko ekimenak aztertzeke, beraz, atal honetan MOEren azterketa bat egingo da, zer den azalduz hasiz, finantzaketa prozesuarekin batera bere funtzionamendua ulertuz eta azkenik krisi honi aurre egiteko MOE hartzen ari den txertoen inguruko politikak aztertuz.

### **2.1. INFORMAZIO OROKORRA**

Bigarren Mundu Gerrak ekarri zituen ondorioen ostean, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) mundu mailako osasunaren mantenuan eta hobekuntzan oinarritutako organizazioa sortu zuen, MOE hain zuzen ere. Nahiz eta 1948 arte izaera formal bat ez izan, osasun arazoak tratatzeko ikuspegi internazionala, edo gutxienez transnazionala, XIX. mende erdialdetik existitzen zen (Llordachs, 2020). Mundu mailako osasun politikak kudeatzen ditu, batez ere, osasun prebentzio, promozio eta interbentzio politiketan espezializatzen da (Sociedad Argentina de Urologia, 2015). MOEren helburua herri guztien osasun gradu maximoa lortzen da, bere konstituzioan adierazten duenez: ongizate fisiko, mental eta sozial osoa duen estatuak lortzea (Gobierno de España).

#### 1. irudia: MOE-k mundu mailan dituen eskualdeetako ofizinen mapa



*Iturria: Sociedad Argentina de Urologia, 2015*


1. Irudian ikusi dezakegunaren arabera, 194 Estatu Kide eta eskualdeetan banatutako 6 ofizina ditu:

1. Afrikako Eskualde Ofizina (AFRO)
2. Europako Eskualde Ofizina (EURO)
3. Hego-Ekialdeko Asiako Eskualde Ofizina (SEARO)
4. Mendebaldeko Pazifikoko Eskualde Ofizina (WPRO)

## 5. Ameriketako Eskualde Ofizina (AMRO)

MOE bi bidetatik finantziatzen da; salatutako ekarpenetatik eta ekarpen boluntarioetatik. Salatutako ekarpenak kide diren estatuak ordaindu beharreko derrigorrezko kuotak dira, beraien aberastasun eta populazioaren arabera kalkulatuak. Bestalde, ekarpen boluntarioak estatu edo beste entitate batzuetatik etorri daitezkeen ekarpenak dira, entitate hauek fundazio pribatuak, organizazio internazionalak, Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE), unibertsitateak edota NBEk beste agenzia batzuk izan daitezke. Ekarpen boluntarioek ekarpenen %76a osatzen dute eta salatutako ekarpenek berriz, %16a (El Orden Mundial [EOM], 2020a).

### 1. Grafikoa: MOEren aurrekontuko ekarpenen ehunekoak (2018-2019)



*Iturria: Norberak eginga, EOM, 2020b*

1. grafikoan ikusi dezakegunez, MOEren aurrekontuan ekarpen handiena duten lehenengo lauen artean, bi estatu; Amerikako Estatu Batuak eta Erresuma Batua, eta bi entitate pribatu ditugu; Gates Fundazioa eta GAVI Alliance. MOE-k 2018-2019an zuen aurrekontua US\$ 4.421,5 milioietakoa izan zen.

Txinako gobernuarekin zorrotzagoa izan nahi zuenez, 2020ko maiatzaren 29an Amerikako Estatu Batuetako presidente Donald Trumpek MOErekin zuen erlazioa moztuko zuela adierazi zuen, koronabirusak sorturiko krisia modu desegoki batean kudeatzea leporatzen baitzion. Presidente aldatetarekin batera, 2021ko urtarrilaren 21ean, Joe Biden, presidentzian jarri berri zen AEB-ko presidente berriak, hainbat agindu betearazle hartu zituen, Trumpen presidentzian hartu ziren hainbat agindu lehengoratzeko; agindu horien artean zegoen MOEa bueltatzea (BBC News, 2020).

Gates fundazioak beraien sozioekin batera txertoak, medikamentuak eta diagnostiko efikazak ematen dituzte eta osasun zerbitzu berritzaileen garapenean inbertitzen dute herrialde pobreenetan. Horretaz gain, gaixotasun infekziosoak prebenitzeko txertoa berrien garapenean inbertitzen dute gehien (Bill&Melinda Gates foundation, 2021). Bestalde, Gavi Alliance 2000. urtean sorturiko nazioarteko erakunde bat da. Bertan, txertoen aliantza mundial baten bitartez, sektore publiko eta pribatuez osatua, herrialde azpigaratuenetan bizi diren umeei txerto berrienganako ekitatezko sarbide bat sortzea du helburu (GAVI, The Vaccine Alliance, 2021).

Bi entitate pribatu hauek, beraz, txertoen sorkuntzan oinarritutako fundazioak dira. Kontuan eduki behar da, txertoak, historiako osasun saileko inbertsio arrakastatsu eta errentagarrienak direla, mozkin handiekin, bizitzan zehar metatzen joaten direnak (GAVI, 2021).

## **2.2. MUNDUKO OSASUN ERAKUNDEAREN ERANTZUNA PANDEMIA GLOBALAREN AURREAN**

Pandemiaren aurrean herrialdeei birusaren kasuak aurreikusten, detektatzen eta hauei erantzuna aurkitzen laguntzen die MOEk, mundu mailako ekimenen bitartez. Egun, COVID-19aren aurkako Erantzun Solidarioaren Funtsa sortu du eta edozein pertsona edo antolakundeek egin diezaiokete donazio bat funts honen bitartez pandemiari aurka egiten laguntzeko (OMS, 2021b). Bere parte diren estatuei orientazioa eta laguntza teknikoko materialez hornitzeko mandatu bat dauka. Pandemia baten aurrean, MOEk hartu beharreko oinarritzko neurria, txertoa produzitzeko hautatu beharreko zepa antipandemikoa aukeratzea izango litzateke eta txerto honen produkzioa beste txertoen prozesuen aurretik jartzea (OMS, 2009). 133 herrialdeetara ari da pertsonal sanitarioa babesteko ekipamendua bidaltzen eta horretaz gain terapia eta tratamenduak eskuratzeko ikerketa koordinatzen du 100 herrialde baino gehiagotan (OMS, 2020a).

Txertoek pandemia honetan duten zeresanaren harira, pandemiaren egoera aprobetxatuz, farmazeutiko eta gobernuak txertoen dosien erosketarako kontratuetako "prezioak puzten" ari direla ohartarazi du MOEk (Economía Digital, 2021). Mendebaldeko herrialdeak beraien txerto propioak sortzen ari dira, ondoren beraien herritarretan erabiltzeko. Bestalde, Errusia eta Txina mendebaldeko potentzietan konpetitzen saiatzen ari dira. "Gerra Hotzaren kutsu bat sumatu genezake egoera guzti honen aurrean, Errusiak bere txertoari Sputnik-V deitu izana ezin da kointzidentzia hutsa izan. "Gerra hotzean Sputnik Momentu bat egon zen, non 1957an errusiarrek beraien satelite artifiziala orbitan jarri zuten." dio Pascal Bonifacek, Estrategia eta Arazo internazionalen Institutu Frantseseko zuzendari fundatzaileak (Brunet, 2021).



Ekitatezkoa ez zen aurreikuspen honen aurrean, MOEk COVAX inizatiba publiko-pribatua bultzatzen hasi zen, 2021erako, herrialde pobreak bi mila milioi txertoz hornitzeko (Marchini, 2021). COVAX proiektua, Alianza Gavi, la Coalición para la Promoción de Innovaciones en pro de la Preparación ante Epidemias (CEPI) eta MOEz osatua dago eta bere helburua COVID-19aren aurkako txertoen garapena eta fabrikazioa bermatzea da; honetaz gain, hauen eskuraketa justu eta ekitatezko bat bermatzea munduko herrialde guztiei (OMS, 2021a). COVAX mekanismoaren bidez, 337milioi dosi banatzea planteatu dute diru-sarrera erdi eta bajuko herrialdeei 2021eko martxoaren hasierarako. Dosi hauen artean 96milioi AstraZeneca txerto (Oxford Unibertsitatean sortua) izango dira, Astrazeneca farmazeutikak sortua eta bestalde 240 milioi txerto Serum Institute (SII) (Indian sortua), izango dira (Agencia EFE, 2021).

Nahiz eta MOEk neurri ekitatiboetan oinarritu beraien ekintza, 2012an, Alison Katzek, Ginebrako egoitza zentraleko kide izan zenak hurrengo hau esan zuen: “MOEren fondoak ekipo mediku eta gaixotasunen tratamenduetara zuzendutako produktu farmazeutikoetara bideratzen dira, prebentzioen neurrietara bideratu beharrean. Prebentzio neurriak ez dute inongo mozkin ekonomikorik sortzen enpresetan.” (TeleSUR, 2016). Honetaz gain, German Velasquez, 20 urte baino gehiagoz MOEn Medikamentuen Programan zuzendari izan zen ekonomistak (Mas, 2021) ondorengo esan zuen: “MOE pribatizazio prozesu baten parte izaten ari da. Betidanik eraman duen rola alde batera uzten ari da, hau da, osasun publikoaren arbitro mundiala izatearena. Karakter aldeaniztun agenzia bat zen sortu zenean eta urte askotan zehar aurrekontua salatutako ekarpenez finantziatua egon zen. Ondoren, Norbegiako lehen ex ministra zuzendari gisa sartu zen unean, aurrekontua handitzen saiatu zen salatutako ekarpen hauen %10 edo %15eko igoera bat eskatuz, baina herrialde industrializatuak proposamen hau baztertu zuten. Honen ondorioz, ekarpen boluntarioak eskatzen hasi zen eta hauek duten ezaugarri nagusia da emailleek aukeratu dezaketela nora doan edo zertarako erabili daiteken diru hau.” (Bañuelos, 2016)

### **3. PANDEMIAK ERAGINDAKO KRISIA EUROPAR BATASUNEAN**

#### **3.1. PANDEMIAK EUROPAR BATASUNEAN SORTURIKO KRISIAREN ONDORIOAK**

Pandemiak EBn sorturiko krisiaren ondorioak aztertzerako momentuan bi zatiketa nagusi egin ditugu; lehenik eta behin osasun alorra aztertuko da ondoren ekonomiaren alorra. Garrantzitsua izango litzateke osasunaren alorra azpimarratzea krisiak eragin dituen ondorio ekonomikoak aztertu aurretik, kontuan eduki behar baita krisi honen arrazoia birus batean egon direla eta ez finantza edo ekonomia arloan. Ondoren, osasun ondorioetatik eratorritako ekonomia ondorioak aztertuko ditugu, osasun krisi bat izaten hasi zenak gure gizarteko hainbat aspektutan eragina izan baitu. Lan honetan zehar gehienbat ondorio ekonomikoetan zentratuko gara, beti ere ahaztu gabe beste hainbat alorretan ere eragin


izan duen krisi baten aurrean gaudela. Ondorengo grafiko hauetan kaltetuen nabarmentzen diren herrialdeen egoera azpimarratuko da, esangura maila handiena dutenak eta beraien egoera partikularra identifikatzen saiatuko da.

### **3.1.1. Osasuna**

Lehenik eta behin, birusaren agerraldia kokatuko dugu Europan. 2019ko Abenduan Txinako autoritateek pneumonia biriko bat detektatu zuen eta 2020ko Urtarrilean gertatu zen birusak ekarri zuen lehen heriotza. Urtarrilaren 24an Frantziak Europar kontinenteko lehen kasua detektatu zuen eta Martxorako Europa pandemiaren epizentrotzat hartu zen, heriotza-tasa altuenak zituen lekua delako Txinarekin batera (OMS, 2020b). Mundu mailan COVID-19 birusaren 104.370.550 kasu baieztatu dira eta hauen %20a Europar Batasunekoak dira. Bestalde, Europar Batasunean baieztatutako kasuekiko heriotza tasa %2,42koa da eta mundu mailan berriz %2,18koa (2021eko otsailaren 5a). Datu hauek aztertuz, MOEk adierazten digu Europa pandemiaren epizentro bihurtzen ari zela (Cruz, 2021). Bestalde, Anthony S. Faucik eta beste jakitun batzuk deseskaladaren politiken porrota azpimarratzen dute Europako egoera adierazteko unean (Jiménez, 2020). Atal honetan Europar Batasuneko herrialdeak pandemiaren egoera honetan jasan dituzten heriotzen indizeak aztertuko dira, kontuan harturik COVID-19aren krisia osasun krisi batetik zabaldu den krisi orokor bat izan dela, beharrezkoa izango litzateke lehenik eta behin heriotzetan jartzea begirada.

Ondorengo grafikoetan argi ikusi dezakegu Europar Batasuneko herrialdeak konparatuz ere desberdintasun handiak aurkitu daitezkeela baieztatutako kasuen eta heriotza tasen artean.


**2. Grafikoa: Europar Batasuneko herrialdeetan baieztaturako eta heriotza kasuak 10.000 biztanleko (2021eko Maiatza)**



*Iturria: Norberak egina, Centro de documentación Europea de Almeria, 2021*

2. grafikoa ikusi dezakegunez, ez da korrelazio nabarmenik agertzen COVID-19arekin 10.000 biztanleko baieztaturako kasuen eta heriotza kasuen artean. Adibide gisa jarri genezake Bulgariaren kasua non 10.000 biztanleko 582 baieztatu kasu dituen eta 23 hildako, bestalde Luxenburgoren kasuan 10.000 biztanleko 1073 baieztaturako kasu ditu baina 12 hildako. Ondorioz, ikusi genezake 10.000 biztanleko Luxemburgok Bulgariak baino baieztatu kasu bikoitza dituela baina hildakoen erdia.

### 3. Grafikoa: Hileko gehiegizko hilkortasun tasa Europar Batasuneko herrialde desberdinen artean (2020)




Iturria: Norberak egina, Eurostat, 2021

#### Adierazlearen informazioa

Gehiegizko heriotza-adierazlea hileko heriotzen kopuruaren aldean erlatiboa (ehunekotan adierazita) kalkulatu da 2016-2019 aldian hil bereko batez bestekoarekiko. Hileko datuak asteko heriotzen datuen arabera kalkulatu dira.

3. grafikoan ikusi dezakegu hileko heriotzen tasek bi gailur nagusi izan dituztela, lehena 2020ko apirilean eta bigarrena, oraindik eta altuagoa 2020ko azaroan. 2020ko apirileko gailurrean nagusitu ziren herrialdeak Espainia (79,40%) eta Belgika (73,90%) izan ziren eta azaroan berriz, Polonia (97,00%), Bulgaria (94,40%) eta Eslobenia (90,60%). Ondorioz, esan genezake herrialde hauek eduki zitzaketela ospitaleetan kolapsorik handiena izateko arriskua, hilkortasun tasa handiak izan bait zituzten une jakin batean.

4. Grafikoa: Asteko gehiegizko hilkortasun tasa Europar Batasunean biztanleriaren urteen arabera sailkatuta (2020)



*Iturria: Eurostat, 2020*

Heriotzak herrialdeka aztertu ondoren, adinari begirada bat jartzea ere garrantzitsua izango litzateke, kontuan edukitzeko ze adinetako jendea den arrisku mailarik handiena duena. 4. grafikoak adierazten duenez, gehiegizko heriotza totaletatik %96 70 urtetik gorako biztanlerian gertatu ziren. Horietatik %40ko gehiegizko hilkortasuna 90 urtetik gorakoetan gertatu ziren, %37a 80-89 urte bitartekoek eta %20a baino gutxiago 70-79 urte bitartekoek (Cereceda, 2020).

2. Irudia: COVID-19-az infektatzeko, ospitalizatzeko eta hiltzeko harriskua edade talde bakoitzeko

|                                    | 0—4<br>years | 5—17<br>years      | 18—<br>29<br>years | 30—<br>39<br>years | 40—<br>49<br>years | 50—<br>64<br>years | 65—<br>74<br>years | 75—<br>84<br>years | 85+<br>years |
|------------------------------------|--------------|--------------------|--------------------|--------------------|--------------------|--------------------|--------------------|--------------------|--------------|
| <b>Cases<sup>2</sup></b>           | <1x          | Reference<br>group | 3x                 | 2x                 | 2x                 | 2x                 | 2x                 | 2x                 | 2x           |
| <b>Hospitalization<sup>3</sup></b> | 2x           | Reference<br>group | 7x                 | 10x                | 15x                | 25x                | 35x                | 55x                | 80x          |
| <b>Death<sup>4</sup></b>           | 2x           | Reference<br>group | 15x                | 45x                | 130x               | 400x               | 1100x              | 2800x              | 7900x        |

*Iturria: Centers for Disease Control and Prevention, 2021*

2. Irudian ikusi dezakegu urte talde bakoitzeko zenbatean handitzen den arrisku hau eta batez ere ikusi genezake edadekoek arrisku handiagoa dutela COVID-19arekin ospitalizatzeko edo hiltzeko, hala nola, gizabanakoak zahartzen doazen heinean arriskuak geroz eta handiagoak bihurtzen dira.


### 3.1.2. Ekonomia

Eurostaten iturri ofizialetan ikus dezakegunaren arabera, 2020an ekonomiako indize guztiek okerrera egin zuten Europar Batasunean. Ondoren ikusi ditzakegu honen adibide nagusi batzuk hainbat adierazle nagusiak aztertuz; langabezia tasa, zor publikoa, turismoa eta azkenik, genero auzia.

#### Langabezia tasa

Atal honetan EBko herrialdeen langabezia tasa aztertuko, kontuan izanik EB grafikoan agertzen denean EBko herrialde guztietan langabezia tasaren batz bestekoari deritzogula. Kasu honetan batz bestekoari begiratzuz gehien nabarmendu diren herrialdeak Grezia eta Espainia izan dira, beraz, beraien kasua aztertuko dugu.

#### 5. Grafikoa: Hileko langabezia tasa Europar Batasuneko herrialdeetan (2007-2020)



Iturria: Norberak egina, Eurostat, 2021

#### Adierazlearen informazioa

*Langabezia tasa Lanaren Nazioarteko Erakundeak (OIT) gomendatutako definizio harmonizatuan oinarritzen da, eta batez ere datu iturri harmonizatu batean, Europar Batasuneko Lan Indarreko Inkestan (LFS). Langabetuak 15 eta 74 urte bitarteko pertsonak osatzen duten biztanleria aktiboaren ehunekoa dira: lanik gabe daudenak; eskuragarri daude hurrengo bi asteetan lanean hasteko; eta aktiboki enplegua bilatu dute noizbait aurreko lau asteetan.*

5. grafikoko datuak 2007tik hartu ditugu, modu honetara 2008ko krisiak izan zituen ondorioak eta 2020koa pixka bat konparatu ahal izateko. Europar Batasuneko batz bestekoari dagokionez, 2008ko krisiaren ostean pikorik altuena 2013ko apirilean egon zen

%11,5eko langabezia tasarekin eta bestalde, 2020ko krisiaren ondoren %7,8koa izan da erregistratu den tasarik altuena 2020ko irailean.

Europar Batasunean langabezia tasarik altuenak dituzten herrialdeak tarte nabarmenarekin Grezia eta Espainia izango lirateke. 2008ko krisiari dagokionez, 2013ko uztailean %27,9ko langabezia tasa zegoen Grezian eta Espainian berriz 2013ko apirilean %26,3koa. 2020ko krisiari dagokionez jaso diren langabezia tasarik altuenak 2020ko ekainean %17,8 Grezian eta 2020ko uztailean %16,9koa Espainian.


Pentsatu genezake langabezia tasa, 2008ko krisiaren ondorioz eman ziren langabezia tasekin alderatuz, hainbeste igo ez izana, telelanaren ondorio bat izan daitekeela. COVID-19aren pandemiaren egoeraren aurrean hainbat herrialdeek telelana bultzatzeko hainbat lege atara dituzte, enpresak ingurune digital baten aurrean prest egon beharko dutela adieraziz (Boletín Oficial del Estado, 2020). Etxetik lanean jarduten zutenak ez ziren asko duela hilabete batzuk, eta ezustean azkartu da lan munduaren digitalizazioa (Ostolaza, 2020). Telelana 2019an Europan % 5,4 igo zen, eta 2020an ia % 40. Horrela, lehenengo «onura» agerikoena da; telelana ezinbestekoa izan dela pandemiaren aurkako erresilientziarako, «distantzia soziala» mantentzeko neurria izan baita (Radomski, 2020). Hala ere, ezin dira bere alde txarrak ahaztu, hala nola, kostu finko asko (argindarra, Interneta, tokia, jan dietak, ofizina materiala, zenbaitetan baita ordenagailua ere) enpresatik langilearengana aldatzea, lanorduak eta aisialdikoak nahastea, deskonexioa zailtzea, eta sindikatuak bezalako elkartasunezko egituren kontra jotzea (Erro, 2020).

Enpresa-erantzunetan teknologia erabiltzeak katalizatzailerik gisa jardun du, digitalizazio-prozesua bizkortu baitu. Ikuspegi digitala, hazkunderako palanka gisa: teknologiaren aplikazioa ez da mugatzen prozesuak hobetzera edo salmentak handitzera, negozio-aukera berriak eraikitzeko ideia baizik. Ikuspegi digital hori lidergotik partekatzen du erakundeak, eta bere estrategiaren parte zen Covid-19 agertu aurretik ere. Beraz, hainbat enpresek bazuten esperientzia arlo digitalean, eta, beraz, egoera berriari emandako erantzunak, bat-batekoak izanda ere, bere kabuz eman zitezkeen (Zubillaga, Peletier, 2021).

### **Zor publikoa**

Atal honetan, EB-ko herrialdeek duten zor gordina aztertuko dugu. Beste behin EBko bataz bestekoa hartuko dugu abiapuntu eta gehien nabarmendu izan diren herrialdeak Grezia eta Italia izan dira kasu honetan.

## 6. Grafikoa: Hiru hileroko gobernu orokorren zor gordina Europar Batasuneko herrialdeetan (2007-2020)



Iturria: Norberak egina. Eurostat, 2021

### Adierazlearen informazioa

Administrazio publikoen zor gordina hiruhilekoaren amaieran balio publikoaren arabera ordaintzen diren pasibo zibilak dira, pasibo kategoria hauetan: moneta eta gordailuak, zor tituluak eta maileguak. Datuak bateratu egiten dira. Adierazlea BPGaren ehuneko gisa adierazten da (hiruhileko BPGren lau hiruhilekoaren batura), urtaroen arabera doitutako datuetan oinarrituta.

Zor publikoa estatu batek dituen zorren batura da eta Barne Produktu Gordinaren portzentail baten gisa adierazi ohi da. Zor Publikoa/BPG hain zuzen ere, modu honetara herrialde batek bere BPGaren ze portzaintail gastatu beharko zuen bere zorra ordaintzeko adierazten da (Datos Macro, 2021). 6. grafikoan ikusi dezakegunez, EB-ko BPG-arekiko zorraren hazkundearen batz bestekoak hazkunde bat eduki izan ditu bi krisiekin batera, hau da, argi ikusi dezakegu 2008 eta 2020an hazkunde nabarmenak eduki dituela. Herrialde desberdinak aztertuta, Grezia eta Italia dira EB-n BPG-arekiko zor gordinik altuen duten herrialdeak. Europar Batasuneko herrialdeetan batz besteko zegoen zor gordina 2020an %89,8koa zen, Grezian berriz %200-koa eta Italian %150ekoa.

Grezia, bere aberastasunaren laurdena galtzera arte iritsi zen azkeneko zorraren krisi finantzarioan eta eurotik ateratzeko puntuan egon zen. Gaur egun, Europako zorrik altuena daukan herrialde honek, bere zorraren zenbatekorik altuenera iristear dago munduko zor publikorik handiena izatera iritsi arte Japoniaren atzetik (Barcelona, 2020). Europako Batzordearen zorraren iraunkortasun txostenaren arabera, pandemiaren ondorioak



2050era arte sentituko dira zor nazionalean, eta zorraren indizea BPGren % 100etik gora mantenduko da 2040ra arte (Greece Investor Guide, 2020).

Italia, koronabirusaren ondorioz gertatu diren heriotza tasa altuen ondorioz eta herrialdeak jasan duen blokeo ekonomikoaren ondorioz gobernuak gastu publikoa handitu behar izan du bertako herritarrei laguntzeko. Produktibitatearen eta hazkunde ekonomikoaren geldialdiak eragin dute zor publikoak BPGan gero eta pisu handiagoa edukitzera eramanez nahiz eta erlatiboki defizit publiko baxuak izan (elEconomista, 2020). Azkenik, Italia izan da COVID-19ak ekarri duen krisi honi aurre egiteko handitu behar izan den zor publikoa ezeztatzeko eskaera egin duena. Une honetan, euro zonako lehen lau herrialdeetatik hiru garrantzitsuenak iritsi dira %100a baino zor publiko handiagoa izatera (Nieves, 2020).

COVIDaren krisiaren aurrean, zor publikoaren krisi honen testuinguruaren aurrean, Europako Banku Zentralak zor gehiago erosiko du eta likidezia injektatuko du, baina ez ditu interes-tasak murriztuko (Doncel, 2020). Lehenik eta behin, ulertu behar da zor publikoaren errentagarritasuna historikoki maila baxuetara jaitsi dela. Beren aurrezkiak aktibo mota horretan inbertituz errentagarri bihurtzen zituzten inbertitzaile kontserbadore askok beste aukera batzuk bilatu behar izan dituzte. Etekinen jaitsiera handiaren ondorioz, zor publikoak erakargarritasuna galdu du inbertitzaile tradizionalentzat. Hala ere, EBZk hartu du lekukoa, azken 4 urteetako zor publikoaren erosle nagusia izan baita, eta Espainiako zorraren bosten bat baino gehiagoren jabe izan da. Antzeko zerbait gertatu da euroguneko gainerako herrialdeetan. Politika hauekin ez ditu bere aktiboak errentagarri bihurtu nahi, sisteman diru-eskaintza handitu baizik (Gomez, 2019). Covid-19k sortutako egoerak zor-erosketak bizkortu ditu, eta programa hori kontuan hartu gabe ere itzelak izango lirateke, 2 bilioi eurotik gorakoak izango bailirateke. Pandemiak iraun bitartean martxan jarritako larrialdi-programaren bidez bakarrik, ikuskatzaileak 651.810 milioi euro inguru erosi ditu euroguneko zorretan. Horrek herrialdearen finantzaketa-gaitasunari dakartzkion abantailez harago, konfiantza horrek urrundu egiten du duela hamarkada bat eurogunea harien aurka jarri zuen zor subiranoaren krisia gertatzeko arriskua. MAPFRE Economicseko adituek, gainera, astelehenean argitaratutako txosten batean azaldu dutenez, "Arrisku-sariak nabarmen murriztu dira EBZren aktiboak erosteko programen ondorioz", eta horrek "nabarmen lagundu du euroguneko herrialde periferikoetako arrisku subiranoaren eta banku-arriskuaren arteko elkarrekiko elikadura arintzen" (Lozano, 2021).


Ekonomistek diote Euro zonako herrialdeen %25aren jabe dela Banku Zentrala, 2,5bilioi eurorena hain zuzen ere eta herrialdeek zergak igo edota gastua gutxitu behar dute zor honi aurre egiteko. EBZk, euro zonan konprometitzen ziren herrialdeei zorraren zati hau ezeztatu diezaioketela proposatu zuen, hauek zorraren baliokide hori beraien ekonomiak ekolojizatzeko eta proiektu sozialak aurrera eramateko erabiltzen bazuten. Erantzun gisa, Christina Lagardek, EBZko burua, 2021eko otsailaren 7an euro zonan metatu zen zor

publikoa ezeztatzea “pentsaezina” zela esan zuen. Bestalde, herrialdeek beraien gastu publikoa zein sektoretan inbertitu behar zuten pentsatzen joan beharko zirela argumentatu zien (Daily Sabah, 2021)

### **Turismoa**

Puntu honetaraino iritsita, esan genezake langabezia tasarik altuena dutenak Grezia eta Espainia direla eta bestalde, zor publikorik handiena dutenak Grezia eta Italia direla. Herrialde hauek amankomunean duten puntu garrantzitsu bat azpimarratzea ezinbestekoa izango litzateke, arrazoitzeko zergatik izan dien krisi honetan kaltetuen atera izan diren herrialdeak: turismo sektorearen pisua BPG-an.

#### **7. Grafikoa: Turismoaren mendetasunik handien duten EB-ko estatu kideak, turismoak duen menpekotasuna BPG-aren %-an neurtuta**




*Iturria: Norberak egina, Puentes, 2020*

7. grafikoan EBn turismoarekiko mendekotasunik handiena duten lehen 10 herrialdeak ikusi ditzakegu. Bertan Kroazia daukagu lehena bere BPGaren %20ko mendekotasunarekin; eta honen ondoren Txipre, Malta, Grezia, Portugal, Bulgaria, Estonia, Luxemburgo, Espainia eta Hungaria ditugu. Azpimarratzekoa litzateke Italia, Grezia eta Espainia agertu izana lehen 10en artean. Krisi egoera honetan Europar Batasunean turismo sektorea izan da COVID-19aren ondorioz kaltetuena izan den sektorea eta hegaldi komertzialetan eta ostatu turistikoetan pasatutako gauen aldagaiak aztertuz ikusi dezakegu hau (European Parliament, 2021).

Europa da munduko lekurik turistikoena; EBko BPGaren %10a osatzen du, 2,4milioi enpresa daude turismoaren sektorean non %90a pymeak diren, %40ko etorkin internazional ditu, europearren %85ak EB-n igarotzen ditu bere oporrak eta turismoaren sektoreak sortzen duen balio erantsia 0,56koa da euroko.

Koronabirusen pandemiak aurrekaririk gabeko presioa eragiten du EBko turismo-industrian. Nazioko eta nazioarteko joan-etorri gehienak etetea eragin duenez, diru-sarrerak nabarmen murriztu dira, eta likidezia-arazoak sortu dira turismo-operadore guztientzat. Bidaiariak eta enpresek ikuspegi zalantzarriak dituzte. EBn turismoaren inpaktuari dagokionez aurreko urteekin konparatuz %60 eta %90 tarteko erreserben gutxitzea, 6 milioi lanpostuen galtzea estimatu da eta sarreren %85-90eko galerak (Comisión Europea, 2021j). Turismoa aztertzeko hainbat indize aurkitu ditzakegu Eurostaten bertan, hauek adibide gisa hegaldi komertzialak eta ostatu turistikoak adierazten dituztenak dira, bertan, argi ikusi daiteke 2020 urte honetan indize hauek eduki duten gainbehera.

**8. Grafikoa: Hegaldi komertzialak herrialde berriemaileen arabera Europar Batasuneko herrialdeetan (2020)**




Iturria: Norberak eginga, Eurostat, 2021

**Adierazlearen informazioa**

Hegaldien datu kopuruen artean, hegaldi instrumentalen arauen arabera (IFR) egindako hegaldi komertzial programatuak eta ez-programatuak (bidaiariak, merkantziak eta posta) daude. Hegaldi kopurua guztira zenbaketa bikoitza duen bazterketa aplikatuz kalkulatzen da herrialde mailan (barne trafikoa) eta EB mailan (EB barruko trafikoa). Datuak aurreko uneko hil beraren aldean uneko hileko ehuneko aldaketan adierazten dira. Datuen iturria Eurocontrol da.

### 9. Grafikoa: Ostatu turistikoetan igarotako gauak Europar Batasuneko herrialdeetan (2009-2020)



*Iturria: Norberak egin, Eurostat, 2021*

#### Adierazlearen informazioa

*Ostatu turistikoaren establezimenduen hileko okupazioak egoiliarrek eta ez direnek ostatu turistikoetako establezimenduetan igarotako gauak neurtzen ditu. Datuak uneko hileko ehuneko aldaketan adierazten dira, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.*

8. eta 9. grafikoan ikusi dezakegunez 2020ko Apirilean egon ziren hegaldi komertzialik eta ostatu etan pasatako gauak gutxiak Europar Batasunean. Itxiera eta berrogeialdi gogorak zeuden Apirilean herrialde gehienetan, beraz, herrialde gehienek joera antzekoa eduki dute. Espero da ostatu eta jatetxeetan sarrerak %50ean jeistea, tour operatzaile eta agentzietan %70a eta aerolinea eta gurutzaontzietan %90a. Europak munduko turisten erdia erakartzen du eta Europar Batasuneko herrialde askoren sektorerik garrantzitsuena da turismoa (European Parliament, 2021).

#### Genero auzia

Pandemiarekin batera, emakumeenganako indarkeria, zehazki indarkeria domestikoa areagotu egin da. Honen ondorio izan dira hainbat faktore, horietako batzuk bizitzako baldintza mugatuak edukitzea, tratatu txarren emaleekin isolamendua, mugimendu mugatzea eta espazio publikoak hutsik egotea.

Emakume eta nesken aurkako indarkeria areagotu egin da munduko herrialde guztietan. Nahiz eta blokeo neurriek birusaren propagazioa gelditu, emakume eta nesken aurkako indarkeria domestikoa gertatzea bultzatzen dute, pertsonak gero eta isolatuagoa baitaude etxeetatik eta egoera honetan daudenei laguntzeko baliabideetatik ere urrunago aurkitzen dira (ONU MUJERES, 2021). 2020ean, genero ikuspegiaren falta nabari izan da pandemiaren

aurka hartu diren plangintzan eta honen ondorio izan dira genero indarkeria kasuen igoera esanguratsua mundu osoan zehar. Konfinamenduan zehar, genero indarkeria kasuen denuntziak gutxitu egin ziren, baina hau emakumeak eguneko 24 orduak beraien erasotzaileekin bizitzen ari zirenen ondorio izan zen, etxetik atera eta salatzeko posibilitatea gutxitu zirelarik. Indarkeriaren aurkako Interneteko bilaketak eta biktimak laguntzeko deien zenbatekoa esponentzialki bidertu dira. Datu gisa esan dezakegu, Espainian 2020ko apiriletik martxora (konfinamendu gogorrena egon zen garaian), indarkeriaren biktimen arretarako online kontsultak % 650ez biderkatu ziren. Gainera, ondorengo azterketetan frogatu da deiak eta salaketak konfinamenduan baino gehiago areagotu zirela deskonfinamenduan, erasotzaileek biktimen gaineko eguneroko kontrola izateari utzi ziotenean (Marban, 2020). Julia Smithek erakutsi zuen azken osasun-krisietan emakumeen eginkizuna ez dela kontuan hartu, eta, gainera, ondorengo ikasketa akademikoen % 1 baino gutxiago aritu direla eragin hori aztertzen. Global 50/50ek 55 herrialdetako informazioa jasotzen du bere webgunean, eta horietatik 26k baino ez dituzte sexuaren arabera bereizten baieztaturako kasuen eta heriotzaren datu eguneratuak (Global Health,2021).

